

zer ote?

Zizurkilgo aisialdirako gida



www.zizurkil.com

abendua 2009 | 76. zenbakia | NEGUA

Aurrera Euzkara | 20159 ZIZURKIL | 943 692495



Zizurkilgo Euskara Bizi Berritze Plan 2005-2008

Kultura

Aben.9 EGUTEGIEN BANAKETA:

Udalak egindako 2010. urterako EGUTEGIAK abenduaren 9tik aurrera banatuko dira Udaletxe eta Aurrera Plazako Udal Bulegoetan herritarren artean. Zatoz zure alearen bila!

LIBURUAREN ASTEA:

Aben.16 "Naturako izaki magikoak", ipuin kontaketa eta tailerra Iriarte Etxean 17:00etan.

Aben.18 TEODORO HERNANDORENA VIII. IPUIN LEHIAKETAKO SARI BANAKETA

17:30ean eta, ondoren, GOAZEN ITSASORA! Ikuskizun musikala, 4-9 urte bitarteko haurrentzat.

2010 Zizurkil

Goazen Itsasora!


Kantuz ziprindutako ikuskizun kresaltsuan murgiltzera



ERAKUSKETA:

2009-12-14/2010-01-08

Josetxo Irastorzaren margoen erakusketa Atxulondo Kultur Etxean.



Kirol Astea

Aben.10 **IPAR GAZI, HEGO GEZA**, 2 bizikleta, 2 hilabete, 2000 km, 2 umerekin...

Ikus-entzunezkoak fam'lia giroan bizibidaiatzeko esperientzia hurbiletik erakusten digu. Rhin, Danubio, Isar, Elbe, edo Iparraldeko Itsasoa bezalako gune naturalak eta Strasbourg, Basel, Munich, Linz, Viena, Hamburgo, Amsterdam edo Paris hiriak zeharkatzen ditu. 19:30ean Atxulondo Kultur Etxean.


Aben.11 Alberto Zerainek KACHENJUNGA ikus-entzunezkoa eskainiko du. 19:30ean Atxulondo Kultur Etxean eta, ondoren, ZIZURKILGO KIROLARIEI OMENALDIA: Maitane Aburuza (Pilota); Nerea Amilibia (Mendi maratoiak); Iker Hernandez, Jon eta Igor Sasiain, Teddy Martinez, Francisco Gonzalez, Mikel Quintana, Iñaki Zubelzu, Alain Moleda, Angel Martin eta Ekaitz Kortajarena (Halterofilia); Modesta Iraola (ehiza); Tamara Lozano (atletismoa); ...

Aben.12 HAMABI ORDUZ KIROLEAN ZIZURKILEN:

• 10:30-12:30: Haurrentzat kirol eta jokoak Intxaur frontoian eta, ondoren, hamaiketako eta opari banaketa.

4 talde desberdin osatuko dira eta talde bakoitzak 4 joko desberdinetan aritzeko aukera izango dute: Sokarekin antolaturiko jokoak | Balioarekin antolaturiko jokoak Euskal jokoak | Halterofiliaren teknikak

• 17:00-19:00h: haurrentzat kart autoak Otaño ikastetxeko frontoian. Zatoz gidatzen ikastera!



22:30 ZIZURKILGO XIII. GAU KROSA

Aurretiaz www.herrikrossa.com orrian egindako izen emateak DOAN eta egunean bertan 21:30etik aurrera 5 euro.

Kategoriak:

HELDUAK, 1993 eta aurretik jaiak: 7'5 km.

GAZTEAK, 1994-1997 artean jaiak: 2'5 km.

HAURRAK, 1997tik aurrera jaiak: 1 km (850 m kontrolatuak eta 150 m libre).



Abenduak, 13

11:30etik aurrera:

INTXAUR FRONTOIAREN BERRITZE LANEN INAUGURAZIOA

PILOTA PARTIDAK



Haurren partida: Peru Labaka – Mikel Garin / Jon Erasun – Jokin Arregi

ESKUZKO PARTIDA: Saralegi - Oteiza / Belloso - Argote

ERREMONTE PARTIDA: Matxin III – Aizpurua II / Etxeberria IV – Agirrezabala

Olentzero

Aben.24 **OLENTZERO**. San Millan Ikastetxeko umeak baserrietan abestuko dute eta Pedro M. Otaño eta Jesusen Bihotza ikastolako umeek Elbarrena auzoa alaituko dute. Ondoren, Urkamendi Elkartean hamaiketako.

Euskera

GABONETAN JOLASEAN: Abenduaren 28, 29 eta 30 eta urtarrilaren 4, 5, 7 eta 8 1997-2005 urte bitartean jaiotako haurrentzat, goizeko 9:30etatik 13:00etara. Izen emateak abenduaren 16a baino lehenago Udal Bulegoetan, 15 euroko ordainketa eginez (tel.: 943-692495). Mungia irteerara joango direnek 5 euro gehiago ordaindu beharko dituzte. Programa

• 2009-12-28: **GABONETAN JOLASEAN** Udaleku irekien hasiera Pedro M. Otaño Ikastetxean.

• 2010-01-04: Mungia **OLENTZEROREN BASERRIRA** irteera.



Gazteria

Aben.22 **BIGARREN ESKUKO JOSTAILUEN GABONETAKO AZOKA ETA TXOKOLATADA:** Pásus Plazan 16:30etik 19:30era.

Aben.29 **TXURI URDINERA IRTEERA**, LH 5etik DBH2ra bitarteko gaztetxoentzat. RENFEko geltokian 15:15ean (20:30erako bueltatuko dira Zizurkilera). Gaztetxo bakoitzak 2 euro eta gurasoen baimena eraman beharko du. Izenemateak: Zizurkilgo Udal Bulegoetan edo kale hezitzaileen bulegoan (astearte, ostegun eta ostiralean 16:30etik 19:30era) abenduaren 19a baino lehenago.



Bestelakoak

P.Mª OTAÑO IKASTETXEA: EUSKERAREN ASTEA, azaroaren 30etik abenduaren 4era; SANTO TOMAS, abenduaren 21ean; Olentzeroren etorrera abenduaren 22an; Gabon eskea, abenduaren 24ean.

Aben.20 **TXISTORRA JATEA** Elizpe Jubilatuta Elkartean antolakuntzapean, 18:00etan.

Aben.31 **URTE ZAHARREKO LASTERKETA.** Antolatzaileak: Urkamendi eta Zunbeltz Elkartek. Irteera eta helmuga Urkamendin.

